

7. ATALA: FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure ondasunak ekoizteko lokal egoki bat beharko dugu. Lokal hori 140 m² ingurukoa izango da eta hilean gutxi gora behera 700 € ordainduko ditugu lokal horren alokairuarengatik.

Beharrezko baliabideak (makinak eta tresnak):

- Lehengaiak: Oloa, espelta, txia, irin integrala, indardun irina, zekalea, kalabaza haziak, pipa haziak, liho haziak, azukrea, ura, olioak, kinoa, intxaurrak eta paxak.
- Labea (garai bateko labeen antzekoa, adreiluz egina)
- Orea egiteko makina eta hartzidura prozesua egiteko egurrezko mahaiak.
- Tresneria txikiagoa: egurrezko arrabola, laberako pala, orea ebakitzeko gailua, neurri ezberdinetako moldeak, orea tapatzeko lihozko tela,...
- Dendarako altzairuak eta dirua biltzeko kutxa.



Ondoren oso garrantzitsua den azken baliabide bat beharko dugu: langileak. Hasieran gu geu izango gara langile bakarrak eta soldata nola banatu diru sarreraren eta kostuen arabera erabakiko dugu. Salmenta ongi joaten bada eta negozioa aurrera badoa, beste langile batzuk kontratatuko ditugu beharren arabera. Hauei 1.300 € inguruko soldata emateko asmoa dugu zortzi orduko lanorduren truke.

Lehenik eta behin, lantegirako eta dendarako beharrezko baliabideak lortzeko dagokion enpresetara joko dugu. Ondoren, gure ondasunak ekoizteko lehengaiak lehen aipatu ditugun hornitzaileengandik eskuratuko ditugu. Hasiera batean, hauekin erlazio zuzena eta pertsonala izango dugu baliabideak ezagutu ahal izateko. Behin behar ditugun lehengaiak ezagutzen ditugunean, gure gustukoak badira eta prezioetan ados jartzen bagara, eskaera e-mailez edo telefonoz egitea gustatuko litzaziguke. Horrela, modu errazagoan eskuratuko ditugu.

OGI-ORE OKINDEGIA (gure okindegia)

Gure lehiakideen prezioak aztertu ondoren, gureak ezarri ditugu. Kontuan hartu dugu gure lehengaiak garestiagoak izango direla. Gure okindegia errentagarria izan dadin eta salmenta kontuan hartuta prezioak estutuko ditugu.

Ogi zuria	1,30 €
Ogi integrala	1,40 €
Baserriko ogia	3,50 €
Espelta ogia	1,50 €

Ogi gatzik gabea	1,15 €
Sesamo ogia	1,75 €
Zenteno ogia	1,70 €
Oloazko ogia	1,55 €
Zerealen ogia	1,65 €

Gure enpresaren lehiakideen prezioak eta lehengaien prezioak ikusteko sakatu https://drive.google.com/open?id=180Bt_fKcbSJUNcz6R2VdWHd6JY6Cfymb.